



Mikel Laboa, "bizi-bizirik"

MUSIKARI DONOSTIARRAREN INGURUKO LEHEN JARDUNALDIAK ETA MUSIKA INSTALAZIOA ANTOLATU DITU KATEDRAK

MAIALEN EZQUERRO
DONOSTIA

“G U sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak...” Mikel Laboak “gureak” egin zituen hitz hauek izan dira abiapuntu bere izena duen Katedraren lehenengo jardunaldiak antolatzeke garaian, Itziar Zubizarreta antolatzailerak azaldu zuenez. Martxoan Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmenaren bidez bultzatutako Mikel Laboa Katedrak datozen egunetan Koldo Mitxelena Kulturunean abeslariaren inguruko musika instalazioa jardunaldiak eta antolatu ditu.

SENTIMENDUAK
Klasiko bihurtu

Jardueraren helburu nagusia Laboaren irudi artistikoa aurkeztea izango da, haren ibilbidean lankide eta lagun izan zirenen hitzak, musika eta irudiak plazara ekarri.

Ikerne Badiola Gipuzkoako Kultura, Gazteria eta Kirol diputatuaren aburuz, abeslari donostiarraren figura ikertzea “berebiziko” garrantzia dauka “irudizko kolektiboan bizi-bizirik irauten baitu bere oroitzapenak”.

Gaineratu zuenez, Foru Aldundiarrentzako “eredugarria” da donostiarrak, “euskalduna, munduari irekia, berritzailea, herriarekin konpromiso sendokoa, etorkizunaren bultzatzailea zelako”, eta balore horiek jardunaren printzipioetan daude.

Mikel Laboa gertutik izenpean antolatutako jardunaldian alor hauek jorratuko dituzte: Laboaren ibilbide estetiko berritzailea helarazteko, Laboaren gertuko artista eta aztertzaileei emango zaie txanda, abiapuntu ugari erabiliz eta hausnarketa estetiko propioak edukiz.

Poeta ez bazen ere, poesia aukeraketa oso zaindua egiten zuen eta euskal poeta gazteen lana erabiltzen zuen, baita maisu lanen letrak erabili ere, Zubizarretaren esanetan. Gaineratu zuenez, “euskaldunen sentimenduen adierazle izan zen eta musikagile herrikoia izanda klasiko bihurtu zen”.

Datorren asteartean, 15an, Bernardo Atxaga idazleak emango dio hasiera ekimenari eta Anari eta Ruper Ordorikaren “a capella” eta gitarra akustikoa arituko dira. Hurrengo egunean, Lourdes Otaegi Imaz, Juan Gorostidi eta Xabier Montoiaren txanda izango da. Arantza Iturbe kazetariak Mari Sol



Mikel Laboa eta Ruper Ordorika, 1996an. ARGAZKIA: N.G.

Jose Luis Zumetaren irudiak ere egongo dira Koldo Mitxelenako Ganbarako hormetan ikusgai

Bastida Laboaren alargunarekin edukiko du bakarrizketa. Azken egunean, hilaren 17an, Denis Labordek hitzaldia eskainiko du eta bestetik, Koldobika Jauregi eskultoreak eta Josetxo Silguero eta Iñaki Salvador musikariek emanaldi estetikoak egingo dute. Beñat Axia-

ri kantaria izango da jardunaldiari ixiera emango diena.

SOINU ESKULTURAK
Erakusketa

Bestalde, Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbaran urriaren 15etik azaroaren 23 bitartean musika instalazioa prestatu dute. Espazio propio eta xume batean irudikatu dute donostiarraren presentzia, hustutako oholza bat eta bere ahotsa, besterik ez. Laboaren ahotsa entzutearekin batera hainbat irudi ikusi ahalko dituzte parte-hartzaileek teklatu bateko teklak jotzean.

Erakusketa aretoan, gainera, atrlak izango dira hiru iPadekin eta bertan prestatzen ari diren filma ikusgai egongo da. Bideoan abeslariaren kantua orok ikusi ahal izango dira, baita irudiak ere.

Halaber, Laboaren ahotsak sortzen dituen uhinak erabili dituzte bi artistek, irudi horiek 3Dko inpresora baten bidez objektu bilakatzeko, xilobotika izeneko teknikaz.

Laboaren diskoen azalak egiten zituen Jose Luis Zumetaren irudiak ere nagusi izango dira aretoan.

Azkenik, Zubizarretak azpimarratu zuen ekintzen erronka “atzerira begira jarri beharrean aurrera begiratzea dela”.

JARDUNALDIAK

● **Hilaren 15ean.** Jardunaldien hasiera 16.30ean; Bernardo Atxaga idazlea Atxaga eta Mikel Laboa, 17.00etan; Anari eta Ruper Ordorika kantariak 18.30ean.

● **Hilaren 16ean.** Lourdes Otaegi Imaz. Mikel Laboaren Antzinako bihotza eta Liluraren kontra. 16.00etan; Juan Gorostidi. Hegazti errari bat pausatu da gure leihoan: Mikel Laboa agertokian. 16.30ean; Arantza Iturbe EITBko kazetaria. Mari Sol Bastidarekin bakarrizketa. 17.30ean; Xabier Montoi. Mikelek txoriak maite zituen: Txori urdina. 18.30ean.

● **Hilaren 17ean.** Denis Laborde. Gutako bakoitza mintzo zen gizona. Txoria txori eta euskal kantaren asmakuntza etengabe berritua. 16.00etan; Koldobika Jauregi, Josetxo Silguero eta Iñaki Salvador, hizketan eta musikaz. Arnasketa bat: Erraldoiak existitzen dira gizaki arruntak fabuletara baztertu badi-tuzte ere. 17.30ean; Beñat Axia. 19.00ean.

● **'Laboa Gertutik'.** Musika instalazioa zabalduko da urriaren 15ean 19.30ean, azaroaren 23ra arte. Orduetgia: asteartetik-larunbatera 16.00etatik-20.00etara. Jose Luis Zumetaren erakusketa txiki bat, soinu eskulturak, Laboaren kantak entzun, baita entzuteko jostailu bat sortu ahal izango dute parte-hartzaileek.



Ikerne Badiola, Ana Arrieta, Itziar Zubizarreta eta Juan Kruz Igerabide, atzo Donostian. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA